

dako Indar Armatuak elkarri lagundu diote trebakuntza lanetan, armak eskuratzeko ekintzetan eta operazio militarretan. Bestalde, errebeldeek Tanzania eta Kongoko Errepublika Demokratikotik zuzentzen dituzte ekintza asko. Ruanda eta Burundiko armadek ere bat egin dute mugetan antolaturiko ekintza militarretan.

«Kontzentrazio eremuak»

1996an «bateratze» politika bati ekin zion tutsi armadak erreboltariak herritarrengandik bereiztu eta populazioa hobeto kontrolatzeko asmoz. Politika horren ondorioz, 700.000 hutu Mandelak kontzentrazio eremuetzat definitu dituen Armadak babesturiko eremuetan bizitzera behartuak izan dira.

Giza eskubideen defentsarako erakundeek maiz salatu dutenez, baldintzak oso kaskarrak dira eremu horietan: janari eskasia eta osasun arazoak dira nagusi, hutuak babesteaz salatutako asko desagertu dira, eta bortxaketak eta hilketak maiz gertatzen dira Armadaren eskutik.

Buyoya presidentek eremuak uztailaren amaierarako itxiko zituela agindu zuen Nelson Mandela bake elkarriketarako bitartekariak hala eskatuta, baina ez du bere hitza bete.

Preso politikoak

Milaka pertsona daude Burundin kartzelaratuta arrazoi etnikoengatik burututako hilketak direla eta. Presoen gehiengoak tutsien aurkako krimenak egitea leporatu zaien hutu etniako burundiarrek osatzen dute. Epaila eta sistema judizialeko goi ofizial gehienak tutsiak dira, artean.

Presondegiak gainpopulatu daude eta gobernuak janari eta sendagaien gainerako murrizketak ezarri ditu askotan. Presoen %18 inguru bakarrik izan dira epaituak eta beste milaka atxilotuk ez dute abokatu baten babesik izan. 1998ko urrian heriotza zigorra ezarri zitzaizkien 250 laguni.

Hori horrela izanda, Ruandako nazioarteko auzitegiaren antzeko epaitegi baten sorrera eskatu dute alderdi politikoetako buruek.

Arushan egiten ari diren bake elkarriketetan preso politikoen auzia eztabaidatu da. Gaia oso gatazkatsua da, ordea, Burundiko bi talde etniko nagusiek ez baitute



Nigeriako lehendakari Olusegun Obasanjo eta Nelson Mandela bitartekaria, Arushako bake hizketaldiak hastean.

Bi urtez bakearen bila

1998KO EKAINEAN hasi ziren bake elkarriketak Tanzaniako Arusha hirian Pierre Buyoya presidente tutsiaren UPRONA (Garapen Nazionalerako Batasuna) eta FRODEBU (Burundiko Demokraziaren Frontea) alderdi hutuaren artean.

Julius Nyerere Tanzaniako presidentearen bitartekaritza pean egin ziren lehen negoziazioak, eta Nelson Mandela Hegoafrikako presidente ohiaren esku egon dira 1999ko abendutik hona.

Hainbat alditan eten dira bake elkarriketak, eta joan den abuztuaren 7an ekin zieten berriz horiei. Mandelak

1998an bildu ziren lehen aldiz Arushan hutu eta tutsien ordezkariak Burundiko krisiari amaiera emateko

lak abuztuaren 28an ezarri du akordio bat sinatzeko epea, baina alderdiak ezkor agertu dira.

Talde gerrillari hutu nagusienetarikoa bat, Demokrazia Defenditzeko Indarrak, eztabaidetan parte hartzen ari da lehen aldiz. Beste talde gerrillari nagusiak (Palipehutu-Askapen Nazionalerako Frontea) ordea, ezezkoa eman dio ustekabeen Arushan egoteari. Alderdi Tutsi erradika-

lenek, era berean, prozesuaren aurkako adierazpen gogorrak egin dituzte. Pasa den astean bildu zen Mandela Johannesburg-en gerrillarien liderrekin eta Buyoya presidentearekin, eta litekeena da Bill Clinton EEBBetako presidentea abuztuaren 28an Arushan egotea.

Bake prozesuko auzi nagusiak trantsizioko gobernu baten eraketa, Tutsien esku dagoen Arma-

dan Hutuek parte hartzea eta botere banaketa ziurtatuko duen hauteskunde sistema baten eraketa dira.

Tutsi eta hutuen erasoak, ordea, ez dira bake elkarriketak hasi zirenetik eten Burundin, eta su-etenaren auzia eta preso politikoen askapena dira, hain zuzen ere, gatazka gehien sortu duten gaiak.

Buyoyak ere ez du hitza bete eta ez ditu errefuxiatu eremuak agindu bezala itxi.

Pasa den hilean Nelson Mandelak aurkeztutako bakerako dokumentua gogor kritikatu dute bi aldeek eta oso orokorra dela eta aldaketa ugari behar dituela argudiatu dute.

genozidioan izandako ardura onartu nahi.

Bahimendua

1996ko uztailaren 31n eskualdeko herrialdeek bahimendua ezarri zioten Burundiri Pierre Buyoya komandanteak estatu kolpe bat

emanda boterea eskuratu ostean. Bahimendua presidente berria ordena konstituzionala berrezarri eta erreboltari hutuekin negoziatzera behartzeko xedez ezarri zuten.

Horren ondorioz, janari eta sendagaien salneurriak gora egin eta Burundiren txirotasuna areagotu egin zen.

1999ko ekainean, azkenik, bahimendua etetea erabaki zuten Arushako bake elkarriketen hasiera zela eta.

Milioi bat inguru lagun hil dira Burundin liskar etnikoak direla eta, horietatik 200.000 7 urte iraun duen guda zibilean.

Duela bi urte hasi ziren

Arushako bake negoziaketetan bildutako ordezkarien esku dago orain tutsi eta hutuak adiskidetu dituen akordioa lortzea. Burundin, artean, sarraskiak aurrera jarraitzen du.

Usoa Otaegi
DONOSTIA